Consejo Escolar de Navarra

Nafarroako Eskola Kontseilua

Bertaratutako kideak:

**Mari Luz Sanz Escudero**
Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)
**Pablo Arriazu Amat**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Gil Sevillano González**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Josu Reparaz Leiza**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria
(Nafarroako Ikastolen Elkartea)
**María Rodríguez Morán**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)
**Pilar López Valderrama**
Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)
**Maite Pellejero Olcoz**
Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria
**Santiago Álvarez Folgueras**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)
**Mª Soledad Garjón López**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (AFAPNA)
**Mikel Rodríguez Aguirreche**
Enpresarien elkarteen ordezkaria.
**María Teresa Módol Betriu**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen ordezkaria (CONCAPA)
**Antonio Bellido Pérez**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Iosu Mena Sarasola**
Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria
**Marta Díez Napal**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria
(SORTZEN)
**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**
Toki entitateen ordezkaria
**Lourdes Larunbe Arretxe**

Iruñean, 2021eko abenduaren 15eko 16:59an, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

3. 2020-2021 NHSTko kapituluen zirriborroa.

4. 2020-2021 ikasturteko memoria.

5. 2021eko 2. seihilekoko kontuen zirriborroa.

6. Galderak eta eskaerak.

Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria
**María Jesús Salanueva Uriarte**
Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).
**Jabi Arakama Urtiaga**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai)
**Javier Azanza Fuentes**
Unibertsitatetik kanpoko Nafarroako ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria.
**Cristina Bayona Saez**
Unibertsitateen ordezkaria (NUP)
**Isabel Fernández Pan andrea**
Sindikatuen ordezkaria (UGT)
**Oihane Jordán Mosén**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)

Ezin etorria adierazi dute:

**José Jorge Lanchas Rivero**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)
**Tomás Rodríguez Garraza**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Arantxa Ruiz Vidorreta**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)
**Ignacio Mª Iraizoz Zubeldia**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)
**Begoña Unzué Vela**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ez dira bertaratu:

**Patricia Fanlo Mateo**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)
**Germán Chocarro Garbayo**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria (BRITILA)
**Pedro Rascón Macías**
Aitortutako ospea duen pertsona
**Sonia Rivas Borrell**

Unibertsitateen ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)
**Mario Fabo Caleo**
Toki entitateen ordezkaria
**Ainara González Rubio**
Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

**1. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bileraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

**2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.**

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, 2021eko irailaren 15etik 2021eko abenduaren 15era arte.

**3. 2020-2021 NHSTko kapituluen zirriborroa.**

Kontseiluburuak proposatu du lantaldeak jada onetsi dituen zuzenketak onetsitzat jotzea.

Onetsi egin dira, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

Kontseiluburuak 2020-2021 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren bozketa abiarazi du.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

**4. 2020-2021 ikasturteko memoria.**

Kontseiluburuak proposatu du 2020-2021 ikasturteko memoria bozkatzea.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

**5. 2021eko 2. seihilekoko kontuen zirriborroa.**

Kontseiluburuak azaldu ditu kideei igorritako dokumentazioan agertzen diren kontzeptuak, eta zirriborroa onestea proposatu du.

Bertaratutako kideek aho batez onetsi dituzte 2021eko 2. seihilekoko kontuak.

**6. Galderak eta eskaerak.**

Kontseiluburuak hartu du hitza, eta 2022ko urtarrilaren 10eko jardunaldiei buruzko gaiak aipatu ditu. Adierazi du Nafarroako Eskola Kontseiluko kideek postaz jasoko dituztela jardunaldietan parte hartzeko gonbidapenak. Era berean, labur azaldu du nola garatuko diren jardunaldi horiek.

Lourdes Larumbek galdetu du zergatik ez duten parte hartzen administrazio eta zerbitzuetako langileek Hezkuntza Itunaren garapenean, zuzenean eragiten dieten gaiak baitira.

Kontseiluburuak erantzun dio Hezkuntza Ituna ez dela itun sindikal edo sozial bat, baina administrazio eta zerbitzuetako langileek Nafarroako Eskola Kontseiluan duten ordezkariak bertan lantzen diren gai guztietan hartzen ahalko duela parte.

Santiago Álvarezek hartu du hitza, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatu dio argia izateko guraso-elkarteek kudeatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukerari buruz, bai eta jarduera horiek egiteko baldintzei buruz ere.

Gil Sevillanok adierazi du Hezkuntza Departamentuak jada ezarrita dituela horretarako baldintzak.

Mari Luz Sanzek eskatu du osoko bilkuretako gai-zerrendako irizpenei erantsitako dokumentazioa aurretik eskuratu ahal izatea, behar bezala aztertu ahal izateko.

German Chocarrok eskaera bat egin dio Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrari: eskola oporraldian prestakuntza beka eskatu duten irakasleen lana aitortzea.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 19:00etan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.